

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

565

AGINDUA, 2025eko urtarrilaren 13koa, Hezkuntzako sailburuarena, Leioako (Bizkaia) «St. George's British International School» atzerriko ikastetxeari irakaskuntzak gehitzeko emandako irekitzeko eta jardunean jartzeko baimena aldatzeko eta udalerri bereko «San Jorge» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari Batxilergoko irakaskuntzak pixkanaka kentzeko baimena emateko dena.

«Colegio San Jorge, SL» erakundeak aurkeztutako eskaerak aztertu dira, bere titulartasun diren «St. George 's British International School» (015852 eta 48019481 kodeak) ikastetxearen baimena aldatzeko Ingalaterrako (Erresuma Batua) curriculum nazionalako irakaskuntzak handitzeagatik, bai eta udalerri bereko «San Jorge» Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari (014771 eta 48005706 ikastetxeen kodeak) emandako baimena ere aldatzeko, Batxilergoko irakaskuntzak pixkanaka kentzeagatik.

Espediente horiek ezarritako prozeduraren arabera izapidetu dira, indarrean dagoen araudiak eskatzen duen dokumentazioa erantsi zaie, eta gai horretan eskumena duten erakundeek aldeko txostena eman diete.

Hauek aztertu dira: Hezkuntzarako eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa, Espainiako atzerriko ikastetxeen araubideari buruzko maiatzaren 28ko 806/1993 Errege Dekretua (otsailaren 12ko 131/2010 Errege Dekretuak aldatua), Euskal Hizkuntza eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza, Natura eta Geografia Zientziak eta Historia irakaskuntzen curriculum eta gutxieneko ordutegia finkatzen dituen Hezkuntzako sailburuaren 2024ko otsailaren 1eko Agindua (Euskal Autonomia Erkidegoko derri-gorrezko irakaskuntzen baliokideak diren atzerriko hezkuntza-sistemen irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan), 332/1992 Errege Dekretua, apirilaren 3koa, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak emateko baimenak ikastetxe pribatuei emateari buruzkoa, 132/2010 Errege Dekretua, otsailaren 12koa, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikasketak ematen dituzten ikastetxeen gutxieneko baldintzak ezartzen dituen, 215/2004 Dekretua, azaroaren 16koa, 0 eta 3 urte bitarteko umeentzako haur-eskolek bete beharreko gutxieneko baldintzak ezarri, eta abenduaren 17ko 297/2002 Dekretuaren artikulua batzuk indarrean iraunarazten dituen (azken Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko zero urtetik hiru urtera bitarteko umeen haur-eskolak arautu zituen 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteetan), eta gai horretan aplikagarriak diren indarreko gainerako arauak. Beraz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Jarraian deskribatzen den Bigarren Hezkuntzako ikastetxe pribatuari baimendutako Batxilergoko irakaskuntzak pixkanaka iraungitzea:

Kode-zenbakia: 014771 eta 48005706.

Izen generikoa: Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Pribatua (BHIP).

Izen espezifikoa: «San Jorge».

Titularra: San Jorge Ikastetxea S.L.

Helbidea: Artazagane, 51.

Udalerria: Leioa.

Lurralde Historikoa: Bizkaia.

Eragindako ikasleen eskolatze-jarraitutasuna bermatze aldera, irakaskuntza horiek mailaz maila iraungiko dira, honela:

1.– Batxilergoko 1. mailari dagozkion irakaskuntzak, 2024ko irailaren 1ean.

2.– Batxilergoko 2. mailako irakaskuntzak, 2024-2025 ikasturtea amaitzean.

Ikastetxe horren jarduera uzteak 2025eko irailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta irekitzeko eta jardunean jartzeko baimena eman zuten xedapenak indarrik gabe geratuko dira. Une horretan baja emango zaio Hezkuntza Saileko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen erregistroan duen inskripzioari.

Ikastetxeak berriz irekitzeko eskatuko balu, ikastetxeak baimentzeari buruz indarrean dauden xedapenetan jasotako aginduak bete beharko lirateke.

Bigarrena.– Jarraian zehazten den atzerriko ikastetxe pribatuari emandako baimena aldatzea, Ingalaterrako (Erresuma Batua) curriculum nazionalari dagozkion irakaskuntzak handitu direlako:

Kode-zenbakia: 015852 (EAE) eta 48019481 (Unibertsala).

Izen generikoa: Atzerriko Ikastetxe Pribatua (AIP).

Izen espezifikoa: «St. George 's British International School».

Titularra: San Jorge Ikastetxea S.L.

Helbidea: Artazagane, 51.

Udalerria: Leioa.

Lurralde Historikoa: Bizkaia.

Baimentzen diren irakaskuntza berriak:

– 2024ko irailaren 1etik aurrera, Year 12, 20 ikaspostutarako edukierarekin.

– 2025eko irailaren 1etik aurrera, Year 13, 20 ikaspostutarako edukierarekin.

2025-2026 ikasturtearen hasieratik ateratako osaera:

– Pre-Nursery, Year 7ra arte, 240 ikaspostutarako edukierarekin.

– Year 8 eta Year 9, 50 ikaspostutarako edukierarekin.

– Year 10 eta Year 11, 50 ikaspostutarako edukierarekin.

– Year 12 eta Year 13, 40 ikaspostutarako edukierarekin.

Hirugarrena.– Baimenaren baliozkotasuna.

British Council Fundazioaren Espainiako Ordezkaritzak emandako akreditazioekin bat etorriz, emandako baimenak balio hau izango du:

– Pre-Nurserytik Year 7ra bitarteko irakaskuntzak: 2025eko maiatzaren 24ra arte.

– Year 8 eta Year 9 irakaskuntzak: 2024ko abenduaren 31ra arte.

- Year 10 eta Year 11 irakaskuntzak: 2028ko maiatzaren 31ra arte.
- Year 12 irakaskuntzak, 2024ko irailaren 1etik 2026ko maiatzaren 31ra arte.
- Year 13 irakaskuntzak: 2025eko irailaren 1etik 2026ko maiatzaren 31ra.

«St. George's British International School» erakundeak emandako baimena luzatzeko eskatu beharko du, balio-epea amaitu baino hilabete lehenago gutxienez. Luzapen hori egiteko, British Council Fundazioaren Espainiako Ordezkaritzak beste akreditazio bat eman beharko du.

Laugarrena.— Emandako baimena indarrean dagoen bitartean, lehenengo eta bigarren ebazpen-zatietan aipatutako ikastetxeek ezin izango dituzte beren burua identifikatzeko erregistro-inskripzioetan agertzen direnez bestelako datuak erabili, Hezkuntzarako Eskubidea arautzen duen uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoaren hamahirugarren artikuluan eta Espainiako atzerriko ikastetxeen erregimenari buruzko maiatzaren 28ko 806/1993 Errege Dekretuaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, hurrenez hurren.

Halaber, bigarren ebazpen-zatian aipatutako ikastetxeak Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura, eta Geografia eta Historia irakaskuntzekin osatu beharko ditu baimendutako irakaskuntzak, Hezkuntza sailburuaren 2024ko otsailaren 1eko Aginduan ezarritakoarekin bat etorriz. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan derrigorrezko irakaskuntzen baliokideak diren atzerriko hezkuntza-sistemak ematen dituzten ikastetxeetan Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza, Natura eta Geografia Zientziak eta Historia irakaskuntzen curriculum eta gutxienezko ordutegia ezartzen dira.

Bosgarrena.— Agindu honetan aipatutako zentroek martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikuntzaren Kode Teknikoa bete behar dute, bai eta indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen higie-, osasun-, akustika-, bizigarritasun-, segurtasun- eta irisgarritasun-baldintzak ere. Baldintza horiek ez betetzearen erantzukizuna zentro horien erakunde titularrari dagokio.

Era berean, zentro horien titulartasuna indarrean dagoen legeria betetzera behartuta dago zentro horiei eragiten dien guztian, bai eta baimena berrikusteko eskatzera ere, beren legezko ordezkararen bitartez, erregistroko datuen bat aldatu behar denean. Bestela, emandako baimena baliogabetuko litzateke.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioko Hezkuntzako sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urtarrilaren 13a.

Hezkuntzako sailburua,
MARÍA BEGOÑA PEDROSA LOBATO.